




EKONOMIA

# ‘Euskal Sagardoa’ Jatorri Izendapena sortzeko prozedura abiatu dute ekoizleek

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagar eta sagardo sektoreko elkarte guztiek ‘Euskal Sagardoa’ Jatorri Izendapena sortzeko eskaera erregistratu dute Lakuako Gobernuan. Bertoko sagarrez egindako produktuari «merezi duen duintasuna» ematea da sektorearen helburua.

NAIZ | GASTEIZ | 2016/09/05 18:18 EGUNERATUA: 18:48



Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Sagar eta Sagardogile elkarte guztiek aurkeztu dute eskaera. (NAIZ)

Azken urteotan eginiko lanaren ondotik, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Sagar eta Sagardogile elkarte guztiek Jatorri Izendapena sortzeko eskaera bateratua erregistratu dute Lakuako Gobernuan, horretarako dokumentazio guztia entregatuta.

Proiektuak bi zutabe garrantzitsu dituela azpimarratu dute: bertoko sagarra eta kalitatea. «Helburua da, zenbait urteren buruan, Euskadin beharezkoa den sagar guztia bertan sortzea eta horretarako ‘Euskal Sagardoa’ Jatorri Izendapena ezinbesteko lanabesa da», azpimarratu dute. Ildo horretan, kalitateak ere garrantzia handia duela nabarmendu dute.

Jatorri Izendapenaren bereizgarria izango duten lehen sagardo botilak lehen bait lehen merkaturatzea da orain sektorearen asmoa.

Egitasmoaren bultzatzaileek bilera egin dute Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuarekin proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. Sail hori da lehen faseko tramitazioak egiteko eskumena duen organoa.

**Prozedura**

Ohar batean, Lakuako Gobernuak «oso ondo» baloratu du sagardo naturalaren Jatorri Izendapena sortzeko eskaera egin izana. Dokumentazio guztia jasota, Gobernuak sei hilabeteko epean emango du bere ebazpena.

Aldekoa bada eta haren aurkako errekurtsorik aurkezten ez bada, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak aldeko ebazpena EHAAn argitaratu eta Madrilgo Nekazaritza Ministerioari jakinaziko dio.

Ebazpena argitaratu ondoren, Jatorri Izendapenak behin behineko Estatu mailako babesa eskuratuko du eta, BOEn argitaratuta, operatibo egongo da.

Ondoren, Ministerioak eskaera espediente hori Europako Batzordean aurkeztuko du.

Lakuak «erabateko errespetua eta laguntza» eskaini dio sagardogintza sektoreari.

sartu NAIZen webgune berezietan

## AZKEN BERRIAK

**INFO** / KIROLAK

**Riviere considera que existe plantilla «para lograr la permanencia»**
El delantero francés Emmanuel Riviere, que ha sido presentado como ...

**MEDIABASK** / EKONOMIA

**L'urbanisme en concertation**
Jeudi 8 septembre, à 18 heures, l'Agglomération côte basque-Adour o...

**IRUINDARRA** / IRUÑERRIA

**El Ayuntamiento encargará un proyecto para subsanar los defectos de la pasarela del Labrit**
El Ayuntamiento de Iruñea encargará un proyecto para subsanar los d...

**KAZETA** / EKONOMIA

**Euskal Konfederazioak LAB sindikatuari elkartasuna erakutsi dio**
Euskal Konfederazioak LAB sindikatua sostengatu du CGTk bere kontra...

**INFO** / EUSKAL HERRIA

**EAJk 27 eserleku lortuko lituzke, EH Bilduk 17 eta Podemosek 14, EiTBren inkestaren arabera**
EAJk 27 eserleku lortuko lituzke Gasteizko Legebiltzarrean irailare...


GARA 2016/9/7

El Estado veta a la ciudadanía vasca elegir a Arnaldo Otegi

Sarek presoen eskubideen inguruko akordio politikoak bilatuko ditu

El Estado no ha recuperado ni el 5% del rescate bancario




**EUSKAL HERRIA**

- Pili Zabala apuesta por «superar el Estatuto de Gernika con un nuevo pacto social»
- Alarde parekidearen alde «trabak kentzeko beharra» nabarmendu du Arartekoak
- Fallece una mujer de 75 años en la Concha por causas naturales
- EAJk 27 eserleku lortuko lituzke, EH Bildu 17 eta Podemosek 14, EiTBren inkestaren arabera

**MUNDUA**

- Myanmar sigue lejos de la paz
- Colombia
- El Govern fijará este año cómo se culminará el proceso independentista
- Soria renuncia a su candidatura a un puesto en el Banco Mundial tras las críticas generalizadas

**EKONOMIA**

- Sakelekoarekin ordaintzeko aplikazioa garatu du Boletus-ek
- LABen kontrako auzian CGTk ez ditu barne kontraesanak itzali
- Los educadores del Guggenheim inician una huelga indefinida
- ‘Euskal Sagardoa’ Jatorri Izendapena sortzeko prozedura abiatu dute ekoizleek

**KULTURA**

- El foro de Santa Kriz reivindica el nombre de Nemanturisa
- «Atrapados por la Serpiente», el recuerdo de Cancer Moon
- ‘Gurdi bidea’ ekimena
- PSN acusa a Asiron de «amparar a quienes enaltecen el terrorismo» por contratar al grupo Tximeleta

**KIROLAK**

- La cita más universal con la superación deportiva
- Más de 460 patinadores participarán en el maratón Iruñea-Gares
- Riviere considera que existe plantilla «para lograr la permanencia»
- Realaren elastikoa jantzita itzuliko da Bera Bera Txapeldunen Ligara